


GAZTE
ARTE
2023-24

(Izaro Pardo)
(Lah Ortiz)
(Ani Chkhartishvili)
(Jone Irazu, Leire Zabaleta, Oihane Gil)



Izaro Pardo
“Trascendence”

4

(euskara)

Gazte Arte deialdiaren laugarren edizioko (pandemia osteko lehena) erakusketa-proposamen honek autoezagutza-bidaia garrantzitsu bat irudikatu nahi du, bizitzaren etapa desberdinetan zehar.

Lah Ortiz
“Irresistible lineal”

10

Deialdiko talde eragileak, komisarioek eta artista irabazleek Oihanederreko ur-biltegian egindako sorkuntza-prozesu irekia- ren ondorioz jaiotako erakusketa da.

Ani Chkhartishvili
“Una habitación, una luz”

16

Heriotzatik abiatzen den ibilbide zirkular bat da, osasun mentaletik, gorputzetik eta espazio propio baten bilaketatik igaroz, haurtzarora itzuliz amaitzen dena.

Jone Irazu, Leire Zabaleta, Oihane Gil
“Congelando la memoria”

22

Sorkuntza-fasean artisten artean sortutako sinergiek, elkarren arteko esku-hartze artistikoak eragin dituzte, era honetan lau obrak elkarri lotuz.

(castellano)

La propuesta expositiva de la cuarta edición de Gazte Arte (la primera post-pandemia) consiste en la representación de un viaje trascendental de autoconocimiento, a lo largo de las diferentes etapas de la vida.

La muestra ha nacido a través de un proceso de creación abierto llevado a cabo en el depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso por el grupo motor, comisarios/as y artistas ganadores/as de la convocatoria.

Se trata de un recorrido circular que parte desde la muerte, transitando la salud mental, el cuerpo y la búsqueda de un espacio propio, para concluir con el regreso a la infancia.

Durante la fase de creación surgieron sinergias que se han manifestado con la intervención de los/as artistas en los proyectos de sus compañeros/as de creación, entrelazando y conectando así las cuatro obras.

Irantzu Lekue
Dani Urraca
Alba Tojo
Adriana Fariñas

(euskara) Zinea, literatura eta argazkigintza gustuko ditu, eta bere zaletasuna istorioak kontatzea da. Betidanik marraztu izan du, baina 2020an serioago hartzen hasi zen. Zabalzana BHI-ko *Inktober* lehiaketa irabazi zuen 2021. urtean eta gaur egun Ekialden batxillergo artistikoa egiten ari da.

Zientzia fikziozko filmak gustuko ditu (*Star Wars, Blade Runner, Batman el caballero oscuro...*). Bere inspirazio nagusia 90. hamarkadako kultura popularra da, gehienbat musika (*Radiohead, Oasis, The Strokes...*) eta *Dark Academia* estetika (*El retrato de dorian gray, Frankenstein...*). Txikitatik Tim Burtonen filmen estetika siniestroa gustuko izan du.

(castellano) Le gusta el cine, la literatura y la fotografía, y su afición es contar historias. Siempre ha dibujado, pero en 2020 empezó a tomárselo más en serio. En 2021 ganó el concurso *Inktober* de IES Zabalzana y actualmente está cursando el bachiller artístico en Ekialde.

Le gustan las películas de ciencia ficción (*Star Wars, Blade Runner, Batman el caballero oscuro...*). Su principal inspiración es la cultura popular de los 90, principalmente la música (*Radiohead, Oasis, The Strokes...*) y la estética *Dark Academia* (*El retrato de dorian gray, Frankenstein...*). Desde pequeña le ha gustado la estética siniestra de las películas de Tim Burton.

TRASCENDENCE Margoa | Pintura

(euskara) Txikia zenean, Izaro Pardo heriotzaren beldur zen. Betidanik lasaitu izan du pentsatzeak denok diogula beldurra, eta hain zuzen ere, horregatik estu lotzen garela heriotza amaiera ez dela esaten diguten tradizio eta sinesmenei.

Bere obran, kultura ezberdinek heriotzaren inguruan duten ikuspuntua aztertu, eta horretan oinarritutako hiru artelan egin ditu. Hain zuzen ere, Euskal Herriko antzinaroko kultura (euskal mitologia), eskandinaviarra (bikingoen mitologia) eta kultura mexikarra aukeratu ditu, kultura bakoitzaren elementu, erreferentzia eta estiloak erabiliz.

Euskal Herriko kulturaren, antzinako mitologiako eszena bat irudikatu nahi izan du; zehazki hileta bat, non hildakoa trikuharri baten barruan sartuta dagoen, eta Sugaar jainkoa, heriotzaren zaindaria, bere zain. Sua da koadro honen elementurik garrantzitsuena, eta kolore paleta iluna eta itzalia erabili du, Irati filma inspirazio iturri izanik.

Kultura eskandinaviarrari dagokionez, hileta bikingo bat irudikatu du: emakume bat txalupa batean, gorputza geziz josita duela, barkuak su hartu eta noiz ondoratuko zain. Bere inspirazio nagusia artelan *prerrafaelitak* (Ofelia) izan dira.

Kultura mexikarrean, “*Las Dos Fridas*” lana oinarritzat hartuta, dualtasunarekin jolastu nahi izan du, emakume zahar bat irudikatuz, eta bere alboan La Catrina, emakumea heriotzarako prest egon arte zain. Mexikoko hildakoen eguneko aldareak eta loreak, eta Mexikoko arte muralista izan ditu inspirazio.

Gazte Arteko lantegi irekian galdera bat zegoen Izaroren lan-gunera hurbiltzen zirenen zain. Egilearengandik hurbil, erantzunak uzteko kutxa baten ondoan, luma eta tinta txinatarrez idatzita irakur zitekeen: *Heriotzari buruz zerbait polita idatzenezake?* Hain zuzen ere, galdera horren erantzunak obraren parte dira, eta koadroen ondoan daude ikusgai.

Bestalde, sortze prozesuan zein erakusketan, egileak urik gabeko lore sorta bana aurkezten digu. Lore horiek, ehorzketta-errituekin erraz erlazionatu ditzazkegunak, zuzenean zimeltzen dira ikuslearen begien aurrean. Obra une desberdinetan bisitatuz, ikuslea bizitzaren iragankortasunaren lekuko bihurtzen da.

Lan honen bidez, kultura ezberdinetan heriotza ulertzeko modu oso ezberdinak daudela transmititzea gustatuko litzaioke, eta ez dutela zertan ikuspegi tristeak izan. Hau erakutsiz, jendea lagundu nahiko luke heriotzari beldur gutxiago izateko eta bizitzaren azken unean bakarrik senti ez daitezen.

Cuando Izaro Pardo era pequeña temía a la muerte. Desde siempre le ha tranquilizado pensar que todos y todas tenemos miedo y por eso nos atenemos a las tradiciones y creencias que nos dicen que la muerte no es el final.

(castellano)

En su obra ha analizado la visión sobre la muerte de diferentes culturas y ha realizado tres obras de arte basadas en ello. Concretamente ha escogido la cultura antigua del País Vasco (mitología vasca), la cultura nórdica (mitología vikinga) y la mexicana, utilizando elementos, referencias y estilos de cada cultura.

En el cuadro de la cultura vasca ha representado una escena de mitología antigua: un funeral, con la persona fallecida dentro de un dolmen y el dios Sugaar, guardián de la muerte, esperándole. El fuego es el elemento más importante de la obra, en la que ha utilizado una paleta de color oscuro y apagado, inspirándose en la película Irati.

En el caso nórdico, ha plasmado un funeral vikingo con una mujer atravesada por flechas en una barca, a la espera de que prenda y se hunda. Su principal inspiración han sido las obras de arte prerrafaelitas (Ofelia).

Para la obra mexicana se ha basado en la obra “*Las Dos Fridas*”. Queriendo jugar con la dualidad, ha representando a una anciana, y a su lado a la Catrina, esperando a que la mujer esté lista para la muerte. Se ha inspirado en los altares y flores del día de muertos, así como en el arte muralista mexicano.

Durante los talleres abiertos de Gazte Arte, una pregunta esperaba a quienes se acercaban al espacio de trabajo de

Izaro. Cerca de la autora, junto a una urna para depositar las respuestas, se podía leer escrito a pluma y tinta china: *¿Podrías escribir algo bonito sobre la muerte?* Precisamente, las respuestas a estas preguntas forman parte de la obra y están expuestas junto a los lienzos.

Por otra parte, tanto en el proceso de creación como en la exposición, la autora nos presenta un ramo de flores sin agua que las nutra. Esas flores que tan fácilmente podemos asociar a ritos funerarios, van marchitándose en directo ante los ojos del/de la espectador/a que, visitando la obra en diferentes momentos, se convierte en testigo de lo efímero de la vida.

A través de este trabajo le gustaría transmitir que hay formas muy diferentes de entender la muerte y que no tienen por qué tener visiones tristes. Con ello quisiera ayudar a la gente para que tenga menos miedo a la muerte y que no se sienta sola en el último momento de la vida.





(euskara) Artista *queer* ez bitarra. 7 urte zituela Zaragozara bizitzera joan zen. Bertan prestakuntza jaso zuen, baina ez zuen errorik bota. Beraz, berriz maletak egin, eta abentura berria abiatu zuen Gasteizen.

Gaur egun, *35mm* ikus-entzunezko eskolan soinua ikasten ari da eta *In Our Minds* erakusketa kolektiboan parte hartu du.

Ehungintza modu autodidaktan arakatu du. Modu hurbilago eta sentsorialagoan landutako materialarekiko elkarreraginean du interesa bereziki, zehazki bordatua eta ehundegia erabiliz.

Artistak, oso tradizionalak ez diren materialetan eragin nahi du, gorputz bat ez izatearen edo esperientzia disidente baten sentsazioarekin alderatuz. Era berean, trans-haurtzaroen eta gazteen osasun mentalaren babesaren garrantzia aldarrikatzen du.

(castellano) Artista *queer* no binario. A los 7 años se trasladó a vivir a Zaragoza. Allí se formó, pero no echó raíces. Por lo tanto, volvió a hacer las maletas y comenzó una nueva aventura en Vitoria-Gasteiz.

Actualmente estudia sonido en la escuela de audiovisuales *35mm* y ha participado en la exposición colectiva *In Our Minds*.

Ha explorado de manera autodidacta el ámbito textil. Su interés radica sobre todo en la interacción con el material trabajado de una manera más cercana y sensorial, en concreto usando el bordado y el telar.

El artista busca incidir sobre materiales poco tradicionales, comparándolos con la sensación de no pertenecer como cuerpo o experiencia disidente.

Así mismo, reivindica la importancia de la protección de las infancias trans y la salud mental en jóvenes.

IRRESISTIBLE LINEAL

Ehun artea | Arte textil

(euskara) Lan honetan, Lah Ortizek bulkaden geldiezintasuna sinbolizatu nahi du, trikotilomaniaren ikuspegitik kontatuz, hau da; ilea luzatuz, bihurrituz edota erauziz manipulatzera daraman portaera konpultsiboa. Helburu horretarako, Lah-k ehungintzako hainbat teknika erabiltzen ditu.

Lantegi irekian egindako lehen artelanean, artistak zirku-lu bat marrazten du, eta giza begi batek hartzen du konposizioaren erdigunea. *“Punch Needle”* edo Orratz Magikoa delako teknikaz bordaturiko hari-masa batek inguratzen du irudia, trikotilomaniak erasandako pertsonaren ilea sinbolizatuz. Lan honetan, Lah-k materialaren beraren mugak aztertu nahi izan ditu oihalaren ertzetatik aterata, hura osatzen duten lerroek hedapen-sentsazioa ekar dezaten eta erliebea gehiago indar deza-

ten. Hasierako ideia obraren aurpegi nagusia bakarrik erakustea zen. Hala ere, prozesua hasitakoan, artista atzeko aldeak sortzen duen interesaz ohartu da. Izan ere, alde horrek harien bilbe trinkoa erakusten du, ikusleei erabilitako teknikaren inguruko pistak emanez. Hori dela eta, azkenean, forma borobileko obra gisa erakusten da, eta alde guztietatik ikus daiteke.

Bigarren obran, artistak neurri handiko kubo aurkezten du (200 x 100 x 100), zeinetan bisitariak dermisaren marrak anatomiko bat ikus dezaketen alboetako batean. Albo horretako goiko aldean, marrakia jarraituz, hari batzuk nabarmentzen dira, bisitariak elkarreraginean aritzeko gonbidapena egiten dietenak, obratik bertatik irteten diren "ileak" erauzteko gonbidapena.

Gainera, lantegi irekian Lah-ren espazioaren sarreran zegoen roll up-a ere ikusgai dago erakusketan. Oso gutxitan esku hartzen den publizitate-elementu hau, gainazal osoa zeharkatzen duen bide bat marraztuz josi da, testua saihestuz, goiko aldera iritsi arte, non azken hari-zentimetroko orratz bat zintzilik dagoen. Orratzaren ibilbideak tentu handiz saihesten duen testuak galdera bat luzatzen digu: *Inoiz amore eman duzu ezin eutsizko bulkada baten aurrean?* Jarraian, trikotilomania zertan datzan azaltzen digu.

Lan honen bidez, bulkadak kontrolatzeko nahastearen inguruan kontzientziatu nahi du egileak, eta roll up-aren azken lerroetan irakur daitekeen bezala, gai horri behar bezala heltzeko eta ulertzeko beharra aldarrikatu nahi du, diagnostikoa eta tratamendua hobetzeko asmoz. Ikuspegi berri horrek, *buru-nahasmenduen errealitatean ikusten dena eta ikusten ez den* horretan eragiteko balio dio egileari.

En esta obra, Lah Ortiz pretende simbolizar lo irreprimible de los impulsos, narrándolos desde la perspectiva de la tricotilomanía: un comportamiento compulsivo que lleva a manipular el pelo estirándolo, retorciéndolo e incluso arrancándolo. Para este propósito, Lah utiliza diferentes técnicas de arte textil.

En la primera de sus obras realizada en el taller abierto, el artista dibuja un círculo en el que un ojo humano ocupa el centro de la composición. Esta figura está rodeada por una masa de hilo bordado con la técnica "Punch Needle" o Aguja Mágica, simbolizando el cabello de la persona afectada por la tricotilomanía. En esta obra, Lah quiere explorar los límites del propio material, saliéndose de los márgenes del lienzo, con la intención de que las líneas que forman ese bucle evoquen una sensación de expansión y refuercen aún más el relieve. La idea inicial, era que esta obra fuera expuesta únicamente por la cara principal. Pero una vez comenzado el proceso, el artista descubre el interés que genera la parte posterior, que muestra una densa trama de hilos dando pistas a la persona espectadora de la técnica utilizada. Por ello, finalmente ha sido expuesta como una obra de bulto redondo, pudiendo apreciarse desde todas sus caras.





(castellano)

En su segunda obra, el artista nos presenta un cubo de grandes dimensiones (200 x 100 x 100) en el que las personas visitantes pueden llegar a reconocer en uno de sus laterales un dibujo anatómico de la dermis. En la parte superior de ese lateral continuando el dibujo, sobresalen hilos que invitan a las personas visitantes a interactuar arrancando esos "cabellos" que sobresalen de la propia obra.

Además, la exposición también recoge el roll up ubicado en la entrada al espacio de Lah en el taller abierto. Este elemento publicitario, raramente intervenido, ha sido cosido trazando un camino que recorre toda la superficie, sorteando el texto, hasta llegar a la parte superior, donde cuelga una aguja del último centímetro de hilo. El texto, tan cuidadosamente evitado por el recorrido de la aguja, nos hace una pregunta: *¿Alguna vez has cedido ante un impulso irresistible?* A continuación, nos explica en que consiste la tricotilomanía.

El autor pretende con este trabajo concienciar sobre este trastorno de control de impulsos y reivindicar, tal y como se puede leer en las últimas líneas del roll up, la necesidad de abordar y comprender adecuadamente esta cuestión para mejorar su diagnóstico y tratamiento. Este nuevo enfoque sirve al autor para incidir en *lo que se ve y no se ve en la realidad de los trastornos mentales*.





(euskara)

Nerabezaroan, 2017an Georgiatik joan zenean, artearen munduarekiko interesa areagotu zitzaion. Lehenik Gasteizen ezarri zen eta, ondoren, 2020an, Bilbora joan zen bizitzera. Gaur egun, Sorkuntza eta Diseinuko ikasketen azken urtean murgilduta dago Leioako EHUKo Unibertsitatean.

Karrera hasi zuenetik argazkigintzan oinarritu zuen bere praktika. Karrerako lehen bi urteetan, proiektu pertsonaletan, erretratuetan eta kaleko argazkigintzan aritu zen. Esperimentatzeko duen ikuspegitik irudia aztertu du, baita teknika mistoen esparruan argazkigintzak dituen aukerak ere.

2022ko ekainean, Arte Vital Lehiaketaren erakusketa parte hartu zuen Vital Fundazioaren erakusketa aretoan (Vitoria-Gasteiz). Ondoren, azaroan, VIPHOTO Festek antolatutako *Harria hautsi* erakusketa kolektiboan hartu zuen parte, leku berean.

Duela gutxi, bertako artista saria jaso du 2023ko Fotoarte Argazki Lehiaketan. Aldi berean, *Anima* izeneko bakarkako erakusketa egin du Gasteizko taberna batean, bertako arte-munduan duen presentzia are gehiago sendotuz.

(castellano)

A lo largo de su adolescencia, su interés hacia el mundo artístico fue incrementando tras dejar Georgia en 2017. Primero se estableció en Vitoria-Gasteiz y luego se trasladó a Bilbao en 2020. Actualmente se encuentra inmersa en su último año de estudios en Creación y Diseño en la Universidad de la UPV en Leioa.

Desde el inicio de su carrera, enfocó su práctica en el campo de la fotografía. Durante los dos primeros años de carrera, se dedicó a proyectos personales, retratos y fotografía callejera. Desde su enfoque experimental ha explorado la imagen y las posibilidades de la fotografía en el ámbito de las técnicas mixtas.

En junio de 2022 formó parte de la exposición del Certamen Arte Vital en el Centro de Exposiciones Fundación Vital (Vitoria-Gasteiz). Posteriormente, en noviembre, participó en la exposición colectiva *Romper la Piedra* organizada por VIPHOTO Fest, que tuvo lugar bajo el mismo techo.

Recientemente, ha recibido el premio de artista local en el Certamen Fotográfico Fotoarte de 2023. Simultáneamente, ha llevado a cabo en una cafetería vitoriana la exposición individual titulada *Ánima*, consolidando aún más su presencia en el mundo artístico local.

UNA HABITACIÓN, UNA LUZ Argazkilaritza | Fotografía

(euskara)

“*Una habitación, una luz*” izeneko obrak, espazio pribatu bat edukitzearen garrantziaren kontzeptua aztertzen du, gela pribatu bat zehazki, emakumeek egungo gizartean duten ro-

lean oinarrituz. Gela pribatu hau, emakumeen autonomiaren eta ahalduzaren metafora gisa aurkezten da. Kontzeptu honek berekin dakar emakumeek beren ingurunea kontrolatzeko, erabaki independenteak hartzeko eta beren nortasuna eratzeko espazio propioa izateko beharra, lehendik egondako genero-arauek ezarritako murrizketarik gabe. Ikuspegi zabalago batetik, gela pribatu bat sormenerako eta adierazpen artistikorako plataforma izan daiteke.

Logelaren pribatutasuna aitzakotzat hartzen da emakumeen segurtasunerako eta ongizaterako. Gune propio honek babesleku gisa jokatzeko du, seguru eta babestuta senti daitezeko, batez ere segurtasun pertsonala arriskuan egon daitekeen egoeretan. Virginia Woolfek gai hau lantzen du *“Gela propioa”* entseguan. Duela ia mende bat idatzia izan arren, gaur egun, oraindik ere, gaia esanguratsua da.

Artistak bat-bateko argazkigintzarekin esperimendatzen du, *“Polaroid Emulsion Lift”* teknikarekin argazkigintza mugetatik haratago eramateko. Teknika klasiko horretan, polaroiden filma desitsasi eta ur epelean murgiltzen da filmaren geruzak askatzeko eta, ondoren, eskuz manipulatzeko, tolesturak, testurak eta sakontasuna gehituz azken emaitzari.

Adreiluen, leihoen, ateen edo graffitiaren banakako argazki bakoitza konposizio zabalago baten funtsezko zati gisa integratzen da: etxebizitza-erakin bat. Irudi berri eta oso bati forma emateko zatiak elkartzean, ikusleak collagearen barruko film-pieza espezifiko baterantz zuzendu dezake arreta, eta gero atzera egin, pieza bere osotasunean ikusteko.

Obra sortzeko fasean, publikoak prozesuan parte hartzeko aukera izan du, *“Polaroid Emulsion Lift”* teknika lehen pertsona esperimendatuz. Egileak gida-lanak egin ditu, bisitariak beren emultsioekin esperimendatzera gonbidatuz. Oroigarri gisa eraman aurretik, lortutako emaitzen argazkiak egin dira, erakusketan zehar pantaila batean erakutsi ahal izateko.

Lanaren izenaren trantsizioa, *“Pliegues”*-etik *“Una habitación, una luz”*-era, etengabe aldatzen ari den sormen prozesu dinamiko baten parte izan da. Gazte Arteko tailerretako erakuntza fasean, *“Pliegues”* izenburuak obraren hasierako funtsa kapsulatzen zuen. *“Una habitación, una luz”* izena aldatzeko erabakia, lanaren kontzeptu osoa zehatzago islatuko duen adierazpen baten bilaketan oinarritzen da.

“Una habitación, una luz” explora el concepto de la importancia de poseer un espacio privado, específicamente, una habitación privada, centrándose en el papel de la mujer en la sociedad actual. Esta habitación privada se presenta como una metáfora de la autonomía y empoderamiento femenino. Este concepto implica la necesidad de contar con un espacio propio donde las mujeres puedan ejercer control sobre su entorno, tomar decisiones independientes y forjar su identidad sin las restricciones impuestas por normas de género preexistentes.

(castellano)

Desde una perspectiva más amplia, una habitación privada puede ser una plataforma para la creatividad y la expresión artística.

La privacidad de la habitación se considera fundamental para la seguridad y el bienestar de las mujeres. Este espacio propio actúa como un refugio donde pueden sentirse seguras y protegidas, especialmente en situaciones donde la seguridad personal pueda estar en riesgo. Virginia Woolf aborda este tema en su ensayo *“Una habitación propia”*. A pesar de haber sido escrito hace casi un siglo, el tema sigue siendo relevante en la actualidad.

La artista experimenta con la fotografía instantánea para llevar la fotografía más allá de sus límites con la técnica *“Polaroid Emulsion Lift”*, una técnica clásica en la que la película de Polaroid se despegue y se sumerge en agua tibia para liberar las capas de la película y posteriormente manipularlas manualmente, agregando pliegues, texturas y profundidad al resultado final.

Cada fotografía individual de ladrillos, ventanas, puertas o graffitis, se integra como parte fundamental de una composición más extensa: un edificio de vivienda. Al unir fragmentos para dar forma a una imagen nueva y completa, el/la espectador/a puede dirigir su atención hacia una pieza específica de película dentro del collage y luego retroceder para apreciar la pieza en su conjunto.

Durante la fase de creación de la obra, el público ha tenido la oportunidad de tomar parte en el proceso experimentando en primera persona la técnica *“Polaroid Emulsion Lift”*. La autora ha hecho las labores de guía invitando a las personas visitantes a experimentar con sus propias emulsiones. Los resultados, antes de ser llevados como recuerdo, han sido fotografiados para ser expuestos en una pantalla durante la exposición.

La transición del nombre de la obra, desde *“Pliegues”* hasta *“Una Habitación, una Luz”*, ha sido parte integral de un proceso creativo dinámico y en constante cambio. Durante el periodo de construcción en los talleres de Gazte Arte, el título *“Pliegues”* encapsulaba la esencia inicial de la obra. La decisión de cambiar el nombre a *“Una Habitación, una Luz”* se basa en la búsqueda de una expresión que refleje de manera más precisa el concepto completo de la obra.



JONE IRAZU GARIKANO
LEIRE ZABALETA RUIZ DE ALEGRIA
OIHANE GIL CIRION

(Zalduondo, 2000)
(Vitoria-Gasteiz, 1999)
(Barakaldo, 1999)

BIOGRAFIA | BIOGRAFÍA

Jone Irazu Garikano

(euskara)

Konfiantza handiko pertsonak ziurtatu bezala, Jonek Zalduondon eman zituen bere bizitzako lehen urteak. Handik denbora batera, bere familia Gasteizera joan zen bizitzera lanagatik, eta harrezkero landa-ingurunean nahiz hiri-ingurunean bizi izan da. Familiaren lan kontuengatik denboraldiak pasa ditu beste herrialde batzuetan, AEBetako Renon, Nevadan... Egoera horretan, esploratzaile on orok bezala, pertsona eta giro desberdinak ezagutu eta haietara egokitu behar izan zen, eta horrek, interes antropologikoa sortu zion.

Nerabezaroaurretik bere aisialdiaren zati handi bat musika, antzerkia eta marrazketa ikastera eta praktikatzera bideratzen zuen, eta ikusita horrekin zenbat disfrutatzen zuen, arte-baixilergoa egitea erabaki zuen. Une horretan argazkigintzarekiko interesa garatzen hasi zen.

Halere, Unibertsitateko karrera erabakitzerakoan, Filosofia-ren aldeko hautua

egin zuen. Baina Heideggerrek esaten zuena ulertzen ez zuela ikusita, azkenean antropologia ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, Donostian. Bertan, oinarri teoriko zorrotzagoa garatu ahal izan zuen, eta bere lan artistikoa horretan oinarritu: Antropología Bisuala deskubritu zuen, eta 2022-2023an Kolonbian eta Kuban egindako 5 hilabeteko egonaldian praktitaku zuen. Bertan, hainbat institututan argazki-tailerrak egiteaz gain, argazki- eta bideo-lan dokumentala egin zuen. Gaur egun, bere obra artistikoa ikus-entzunezkoen, marrazketaren, idazketaren eta beste modalitate artistiko batzuen esparruan garatzen da.

(castellano)

Jone Irazu, según le aseguraron personas de toda confianza, nació en Zalduondo en el año 2000 donde pasó allí los primeros años de su vida. Tiempo después, su familia se mudó a Gasteiz por trabajo y desde entonces ha podido vivir tanto en el entorno rural como en el urbano. Durante su infancia, su familia pasó temporadas en otros países, como Reno y Nevada en EEUU, también por motivos laborales. En esta situación, como todo/a explorador/a que se precie, tuvo que conocer y amoldarse a personas y ambientes diferentes, lo cual, quizá, le generó un interés antropológico más adelante en su vida.

Desde la preadolescencia dedicaba gran parte de su ocio a aprender y practicar la música, el teatro y el dibujo, y al ver que aquello era lo que más le divertía, decidió cursar bachillerato en modalidad de artes. Durante este tiempo empezó también a desarrollar su interés por la fotografía.

Sin embargo, a la hora de decidir su carrera universitaria, optó por la Filosofía; pero al ver que no entendía lo que decía Heidegger, finalmente acabó en la carrera de Antropología en la Universidad del País Vasco, en Donostia. Allí pudo desarrollar

una base teórica más rigurosa en la cual podía basar su trabajo artístico: descubrió la Antropología Visual, y la practicó en su estancia de 5 meses en Colombia y Cuba en 2022-2023, donde, a parte de llevar a cabo talleres de fotografía en varios institutos, elaboró un trabajo documental fotográfico y videográfico. Hoy en día, su obra artística se desarrolla en el campo audiovisual, el dibujo, la escritura y otras modalidades artísticas.

Leire Zabaleta Ruiz de Alegria

Leirek arte-batxilergoa ikasi zuen Ekialde institutuan, eta bertan argazkilaritza ezagutu zuen, bere baliabide gogoenetako bat bihurtuz. 2017an, IDarte eskolan Argazkigintzako Goi Mailako Gradua egitea erabaki zuen. Bertan eskuratutako ezagutzak zabaltzeko asmoz, Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko Goi Mailako Gradua egin zuen. (euskara)

Ikus-entzunezkoen munduan argazkilaritza intimista eta kalekoa lantzen ditu batez ere, eguneroko uneak erregistratzeko asmoz, eta ohikotasunaren baitan sortutako gaiak landuz. Bideo esperimentalak, collagea eta marrazketa ere landu ditu.

Erakutsitako bere lehen lana *Souvenir* izenekoa izan zen, 2019an Gasteizko taberna batean aurkeztutako collage sorta. Argazkigintzari dagokionez, 2020an *Doppelgänger* lana erakutsi zuen Orbain Kultur Elkartearen. Urte horretan bertan BAFFEST jaialdiko finalista izan zen *Mirame* sortarekin. 2023ko maiatzean bere lehen lantegia eskaini zuen LABE Gazte Laborategian. Duela gutxi, bere argazki batzuk *ArabaClick*en hautatuak izan dira.

Leire estudió bachillerato artístico en el instituto Ekialde, y allí descubrió la fotografía, que rápidamente se convirtió en uno de sus medios favoritos. En 2017 decidió cursar el Grado Superior de Fotografía en la escuela IDarte. Con intención de expandir los conocimientos allí adquiridos, cursó el Grado Superior de Realización de Proyectos Audiovisuales y Espectáculos. (castellano)

Su fijación dentro del mundo audiovisual ha sido sobre todo la fotografía intimista y de calle, trabajando con el propósito de registrar momentos cotidianos, tratando temas que surgen dentro de lo ordinario. También ha trabajado el vídeo experimental, el collage y el dibujo.

Su primer trabajo expuesto fue *Souvenir*, una serie de collages que presentó en 2019 en un bar de Vitoria. En cuanto a la fotografía, en 2020 expuso la obra *Doppelgänger* en Orbain Kultur Elkarte. Ese mismo año fue finalista del festival BAFFEST con su serie *Mirame*. En mayo de 2023 impartió su primer taller en LABE Gazte Laborategia. Recientemente algunas de sus fotografías han sido seleccionadas en *ArabaClick*.

Oihane Gil Cirion

Barakaldon jaio arren, Oihanek bizitza osoa darama Gasteizen. 2016an, arte-batxilergoa egiten ari zela, argazkilaritzarekiko eta, oro har, ikus-entzunezko munduarekiko interesa piztu zitzaion. Zehazki, kale-argazkilaritzak eta argazkilaritza dokumentalistak markatu izan dute bere ibilbide artistikoa. Horregatik, IDarten Argazkigintzako Goi Mailako Gradua egitea erabaki zuen, bere lana profesionalizatu ahal izateko. 2020an amaitu ondoren, Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko Goi Mailako Gradua egin zuen CIFP Mendizabalan. (euskara)

Bere formakuntza urteetan zehar, diziplina hauek bere aisaldiaren parte ere izan ziren, beraz, tokiko lehiaketa ezberdinetara aurkeztea erabaki zuen. 2016an bere argazki-lana *Gazte Klik Klak* argazki eta bideo lehiaketan aukeratu eta erakutsia izan zen. Geroago, 2018an, lehiaketa berean irabazle suertatu zen beste argazki-proiektu batekin. Urtebete geroago, *ArabaClick*ek bere argazki batzuk aukeratu zituen Gasteizko kaleetan erakusketa bat egiteko. Duela gutxi, Egile-Argazkigintzako Simposio Nazionaleko portfolioak berrikusteko *Jardin Remoto Experience* tailerrean, *Graciela Hernández* beka eman diote. Bekak bi urteko formakuntza eta Gustavo Bravo zuzendariaren tutoretzapean argazki-proiektu bat zuzentzea barnebiltzen ditu.

Pese a haber nacido en Baracaldo, Oihane lleva toda su vida en Vitoria-Gasteiz. En 2016, mientras cursaba bachillerato artístico, se le despertó un interés por la fotografía y el mundo audiovisual en general. En concreto, la fotografía callejera y documentalista, marcaron un antes y un después en su carrera artística. Por eso mismo, decidió cursar el Grado Superior de Fotografía en IDarte, para así poder profesionalizar su trabajo. Tras finalizarlo en 2020, cursó el Grado Superior de Realización de Proyectos Audiovisuales y Espectáculos en CIFP Mendizabala. (castellano)

Durante sus años de formación, estas disciplinas formaron parte también de su tiempo libre, así que, optó por presentarse a distintos concursos locales. En 2016, su obra fotográfica fue seleccionada y expuesta en el concurso de fotografía y vídeo *Gazte Klik Klak*. Más tarde, en 2018, logró ganar este mismo concurso con otro proyecto fotográfico. Un año después, ArabaClick seleccionó algunas de sus fotografías para realizar una exposición por las calles de Vitoria. Recientemente, se le ha otorgado la beca Graciela Hernández en el taller de revisión de portfolios *Jardin Remoto Experience* del Simposio Nacional de Fotografía de Autor, una beca dotada de dos años de formación y la dirección de un proyecto fotográfico a cargo del director Gustavo Bravo.

CONGELANDO LA MEMORIA

Instalazioa – teknika mistoak | Instalación – técnicas mixtas

“*Congelando la memoria*” obrak jangela baten eszena irudikatzen du, protagonista nagusia hozkailua delarik. Diziiplina eta teknika artistiko desberdinak erabiliz, etxearen kontzeptu propioa sortzen du. Artistak eurek eta Oihanederreko ur-biltegiko lantegi irekia bisitatu zuen publikoak egindako imanak, stickerrak, erosketen ticketetako irudiak, marrazkiak... eszenaren parte dira. Hozkailua bera eta inguruko altzariak ere erakusketa eta dekorazio-espazio gisa erabili dira.

Obra, haur baten amets sukartsu gisa agertzen da: kolorez, jostailuz eta altzariak inbaditzen dituzten elementuz betea. Hozkailua margotuta, pegatinekin, eta bizia hartu duten jostailuekin; besaulkia sastakatua, eta urtebetetze-tronu bihurtuta. Elementu guzti hauek, modu dibertigarri eta exageratuan, simulatu nahi dute gizakiok gure hurbileko kulturako eta historia pertsonaleko objektuak - bidaietako imanak, argazkiak lagun eta familiarekin, zakarrontzira botatzen ausartu ez garen haurtzaroko jostailuak...- gordetzeko dugun joera.

Instalazioak hainbat hausnarketa eragin nahi dizkio hura behatzen duenari:

Alde batetik, azpimarratzen du beharbada batzuek Diogenesen Sindromearen sintoma gisa deskribatuko luketen joera: gure etxeak apaintzeko eta objektu sinbolikoz betetzekoa. Fenomeno hau argi eta garbi ikusten da jantokiaren kasuan: antropologiak behatzen duenaren arabera, jangela leku adierazgarria da familia bakoitzaren bizitzan, elkartzeko lekua eta denbora gehien pasatzen den etxeako espazioetako bat baita. Horrela, intimitate, egunerokotasun eta igarotako garaiengana nostalgia sentimenduak iradokitzen saiatzen da.

Bestalde, artearen egungo merkantilizazioari buruz hausnartu nahi du, baita jende arruntak artera heltzeko duen aukeraz ere. Gero eta globalizatuagoa eta komertzializatuagoa dagoen mundu honetan, artea nekez da subertsiboa edo apurtzailea. Are gehiago, ekoizpen artistikoa, ekonomiaren gainerako eremuak bezala, artea egiteko eta kontsumitzeko gaitasuna dutenek monopolizatu dutela esan liteke, goseak hildako artistaren irudia betiketuz. Kulturak estatuaren eta gizartearen aldetik jasotzen duen babes eskasa, kulturari ematen zaion garrantzi txikiaren erakuslea da, bereziki gizartean hain pribilegiatuak ez diren pertsonen eragiten dienean.

Nola iristen da kultura gure etxeetara? Nola eramaten dugu artea gure etxeetatik merkatura? Grina artistikoa duten pertsona askok, pasio hori alde batera utzi behar dute, beste zerbaitetan arituz, egonkortasuna aurkitu ahal izateko. Gure etxeek gero eta liburu eta koadro gutxiago dituzte. Nekez joaten gara museo, zinema eta galerietara; hauek leku elitizatuak bihurtu dira.

Horregatik, gure espazioak kultura indibidual edo sinbo-

liko gisa definitu daitezkeen elementuekin pertsonalizatzera jotzen dugu. Hozkailuetan haurrek egindako marrazkiak, bidaietako souvenir-ak, argazkiak... aurki ditzakegu, gure oroitzapenak izozten eta edertzen dituzten objektuak. Xehetasun horiek guztiak gure historia pertsonalaren aztarnak dira, baita gure ohituren isla ere; elementu multzo hau familia-oroimenaren sinbolo bisuala dela esan liteke.

“(castellano) *“Congelando la memoria”* representa la escena de un comedor, donde la principal protagonista es la nevera. Crea su propio concepto de hogar mediante el uso de diferentes disciplinas y técnicas artísticas. La escena está intervenida por imanes, stickers, dibujos... realizados por las propias artistas y el público que visitó el taller abierto en el depósito de aguas de Montehermoso. También utiliza la propia nevera y los muebles de alrededor como espacios expositivos y decorativos.

La obra aparece como el sueño febril de un/a niño/a: un lugar saturado de colores, juguetes y elementos que invaden los muebles. La nevera pintada, con pegatinas y juguetes que han cobrado vida; el sillón apuñalado y convertido en un trono cumpleañosero... Todos estos elementos pretenden simular de manera exagerada y divertida la manera en la que los seres humanos tendemos a almacenar objetos de nuestra cultura cercana e historia personal: imanes de viajes, fotos familiares, juguetes de la infancia que aún no nos hemos atrevido a tirar, etc.

La instalación pretende traer a la mente de la persona que la observa varias cuestiones:

Por una parte, subraya esta tendencia que algunos/as quizá describirían como síntoma del Síndrome de Diógenes: el hecho de cómo solemos decorar nuestras casas y llenarlas de objetos simbólicos. Éste fenómeno se ve claramente en el caso del comedor, lugar que se considera significativo en la vida de cada familia según lo que observa la antropología, ya que, es un lugar de reunión y uno de los espacios de la casa donde más tiempo pasamos. Así, intenta evocar esos sentimientos de intimidad, cotidianidad y nostalgia por los tiempos pasados.

Por otra parte, busca reflexionar sobre la mercantilización actual del arte y su accesibilidad para la gente común. En un mundo cada vez más globalizado y comercializado, el arte difícilmente resulta subversivo o rompedor, e incluso se podría decir que la producción artística, al igual que las demás esferas de la economía, ha sido monopolizada por aquellos/as que tienen la capacidad de realizarla y consumirla, eternizando la imagen del/ de la artista muerto/a de hambre para los/as demás. El poco apoyo estatal y social que recibe la cultura, muestra la poca importancia que se le da a la misma, especialmente cuando afecta a personas menos privilegiadas en la sociedad.

¿Cómo llega la cultura a nuestras casas? ¿Cómo llevamos el arte de nuestras casas al mercado? Muchas personas con pasiones artísticas se ven obligadas a dejarlas de lado para de-

dicarse a otra cosa con tal de encontrar una estabilidad. Nuestras casas cada vez tienen menos libros y cuadros. Rara vez vamos a museos, cines y galerías, que se han convertido en lugares elitizados.

Por eso mismo, tendemos a personalizar nuestros espacios con elementos que se podrían definir como cultura individual o simbólica. En las neveras podemos encontrar dibujos hechos por los/as niños/as, *souvenirs* de viajes, fotografías... objetos que "congelan" y embellecen nuestros recuerdos. Todos estos detalles son vestigios de nuestra historia personal y también un reflejo de nuestras costumbres; se podría decir que este conjunto de elementos son un símbolo visual de la memoria familiar.





Instagram: @sortzen_vg
vitoria-gasteiz.org/gaztearte

Babeslea | Patrocinado por:



Laguntzailea | Colaborador:



Antolatzailea | Organizador:



